



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 19a

65. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da umetokiaren lepoko minbizia goiz detektatzeko populazio-programa bat ezar dezan eta plan bat ezar dezan pandemian zehar bertan behera utzitako bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak berreskuratzeko. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi biribilgune egin ditzan N-134an, Azagran. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arriskuko taldeak sar ditzan txertatzeko lehentasuna duten taldeen artean. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo, Altsatsuko eta Tafallako trengeltokietako txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko inbertsioen plan bat taxutu dezan. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira errefusa dezaten Ministerioaren eskaintza, mutualitateei txertatzeko ahalmena ematekoa. Osasun Batzordeak ezetsi du (6. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren burutzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua”ri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

- Galdera, aztarnarien taldean armadako kideak (UME) sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruko inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Erronkariko eta Zaraitzuko inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Benecke Kaliko enpresari emandako laguntzei, dirulaguntzei eta zerga-onurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, lantegi-eskoletako programen eta/edo prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen entitate adjudikaziodunek jarduera azpikontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Ogasunaren gaurkotze teknologikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernuaren laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroaren eta Iparralderen arteko sei muga-pasaguneak irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruei eta estatutuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, “Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da umetokiaren lepoko minbizia goiz detektatzeko populazio-programa bat ezar dezan eta plan bat ezar dezan pandemian zehar bertan behera utzitako bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak berreskuratzeko.**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko maiatzaren 11n egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da umetokiaren lepoko minbizia goiz detektatzeko populazio-programa bat ezar dezan eta plan bat ezar dezan pandemian zehar bertan behera utzitako bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak berreskuratzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du:

1.- Berehala berma ditzan minbiziaren antzemate goiztiarrerako programak Nafarroako hiru osasun barrutietan.

2.- Plan berezi bat presta eta ezar dezan, bermatuko duena ezen, sei hilabete baino lehenago,

bularreko minbiziaren antzemate goiztiarrerako programak pandemia aurretik zeukan jarduera berrabiarazteaz gain, COVID-19arengatiko pandemian egiteke utzitako programaren jarduera osoa berreskuratzen dela.

3.- Plan berezi bat presta eta ezar dezan, bermatuko duena ezen, urtebete baino lehenago, kolon eta ondesteko minbiziaren antzemate goiztiarrerako programak pandemia aurretik zeukan jarduera berrabiarazteaz gain, COVID-19arengatiko pandemian egiteke utzitako programaren jarduera osoa berreskuratzen dela.

4.- Sei hilabete baino lehen ezar dezan umetoki-lepoko minbiziaren populazio-programa, Osasun Sistema Nazionaleko oinarritzko zorroan onetsitakoa".

Iruñean, 2021eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten.**

### *EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak, 2021eko maiatzaren 12an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen ditu

2011n onetsitako Konstituzioaren 135. artikulua-  
ren erreforma indargabetzeari ekin diezaioten, eta  
Nafarroako Gobernua premiatzen du indargabe-  
tze hori babestu eta eska dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako  
Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen ditu  
Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraun-  
kortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa  
indargabetzeari ekin diezaioten, eta Nafarroako  
Gobernua premiatzen du indargabetze hori  
babestu eta eska dezan”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi biribilgune egin ditzan N-134an, Azagran.**

### *LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2021eko maiatzaren 12an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi biribilgune egin ditzan N-134an, Azagran”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen du:

1. Premiaz diseina dezan San Adriandik, N-134 errepidetik, herrira sartzeko biribilgunea eraikitze proiektua.

2. Azagrako Udalarekin lankidetzakordio bat adostu dezan, N-134 errepidearen segurtasun-hobekuntza finantzatzeko, herritik igarotzen den tartean. Horretarako, bi biribilgune eraikiko dira: Milagrorako irteerako biribilgunea eta San Adriana sartzeko biribilgunea”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arriskuko taldeak sar ditzan txertatzeko lehentasuna duten taldeen artean.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko maiatzaren 11n egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arriskuko taldeak sar ditzan txertatzeko lehentasuna duten taldeen artean”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du:

1.- Honako arrisku-talde hauei txertoa berehala jar diezaien:

a. Adinekoen edo desgaituen egoitzetan praktikak eginen dituzten ikasleak.

b. Mendetasun handia duten 16 urtetik beherakoen zaintzaileak edo bizikideak, mendetasun

handia duten 16 urtetik gorako pertsonen zaintzaileen eta bizikideen baldintza berdinetan.

c. Txertaketa-lanetan edo kalteberatasun handiko pertsonekin osasun-arretako, arreta soziosanitarioko edo zaintzako lanetan parte hartzen ari diren langile boluntarioak.

2.- Lehentasunezko txertaketa-taldeetan sar ditzan AEA (alboko esklerosi amiotrofikoa) eta Ministerioaren txertaketa-estrategiaren 7. taldean sartuta ez dauden arrisku handiko beste egoera kliniko konplexu batzuk dituzten pertsonak.

3.- Txertaketaren lehentasunak balora ditzan adin-talde bakoitzaren barruko arrisku-estratifikazioaren arabera”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo, Altsatsuko eta Tafallako tren-geltokietako txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean.**

### *LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2021eko maiatzaren 12an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo, Altsatsuko eta Tafallako tren-geltokietako txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejongo, Altsatsuko

eta Tafallako tren-geltokietako txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bidezko prozedurak balia ditzan Renfe enpresarekin, Castejongo, Altsatsuko eta Tafallako tren-geltokietako txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa ahalik lasterren berrezartze aldera”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko inbertsioen plan bat taxutu dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko maiatzaren 14an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko inbertsioen plan bat taxutu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du osasunaren arloko inbertsioen partaidetzazko plan bat taxutu dezan, Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko duena, hura onesteko, 2021eko irailaren 6a baino lehen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira errefusa dezaten Ministerioaren eskaintza, mutualitatei txertatzeko ahalmena ematekoa.**

### *OSASUN BATZORDEAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko maiatzaren 14an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira errefusa dezaten Ministerioaren eskaintza, mutualitatei txertatzeko ahalmena ematekoa. Mozioa Domingo González

Martínez jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko maiatzaren 4ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren burutzari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren burutzari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00100); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

*Kendu egin dira Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeko aurretik ezarritako betebeharrak. Lanpostuaren zer beharizan direla-eta egin da hori?*

Abenduaren 13ko 112/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu egin zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa, ataletako, bulegoetako eta unitate parekatuetako buruztarako beharkizunak ezartzeko, merezimendu-lehiaketa bidez bete daitezzen.

Foru dekretu horri atxikitako zerrendan, Barne Zuzendaritza Nagusiko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutzak A-B mailako beharkizunak zituen, titulazioko beharkizun berariazkorik edo bestelako beharkizun erantsirik gabe.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 31ko 259/2019

Foru Dekretuaren 60. artikulua arabera, Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalaren esparru material eta funtzionala foru dekretu horretan ezarritako eginkizunetara mugatzen da, honako hauekin loturik: zerbitzuaren eskumenen esparruko administrazio baimenak ematea, baita haiek kontrolatu eta ikuskatzea ere, eta joko, ikuskizun publiko eta josteta jardueren arloko segurtasun publikoko politiken arau garapena eta betearazpena.

Bestalde, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 12. artikulua maila hauek eta mailei esleitutako eginkizun hauek ezartzen ditu:

A maila: zuzendaritza jarduerak.

B maila: lankidetzak eta laguntza jarduerak. C maila: exekuzio-lanak.

D maila: laguntza-lanak edo antzekoak. E maila: menpeko laguntzako eginkizunak.

Arau esparru horretan esleitu zitzaizkion beharkizunak ataleko burutzari 2017an. Hala ere, denbora joan ahala ondorioztatu zen C maila berariaz kentzea ez zegoela justifikaturik, kontuan izanik izapide administratiboek garrantzi handia zutelako unitate organikoan (baimenak ematea, kontrol eta jarraipen lanak). Atalaren funtzionamenduaren zailtasun horren aurrean, eta langileen sustapenerako bide gisa atalean sartzen ahal ziren funtzionarioen tipologia hedatzeko asmoz, C eta D mailakoei ere sarbidea emateko aukera ebaluatu zen. Zeuden bost mailetatik lau zirenez atalean sartzeko beharkizunak, 2020an kendu egin ziren beharkizunak, baina agian egokiena zen maila gehiago jartzea, denak kendu ordez.

Hori horrela, eta kontuan izanik atalaren administrazio zama moteldu egin dela 2020an eta 2021ean, jokorako lokalak ustiatzeko baimenen

moratoria indarrean dagoelako, baina ziur aski berriz handituko dela Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2016 Foru Legea behin aldatu ondoren, berriz definitu nahi dira Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalean sartzeko beharkizunak eta barnean hartu nahi da izapidetze lanei dagokien maila, C maila, bai eta D maila ere; maila horien arteko mugak lausoak dira Administrazioaren egungo funtzionamenduan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua”ri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua”ri buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatzizko galdera egin du (PES-00101); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

*Zer irizpideren arabera erabaki da proiektuari izen hori ematea? Zer departamentuk hartu du erabakia? Nafarroako Gobernuak izen hori ematen die Nafarroaren funtsekin ordaindutako harrera-baliabideei?*

NABIk BRAND MATE sorkuntza agentziari eskatu zion *naming*-a, irudi-identitatea eta espazio-kontzeptualizazioa gara zitzala proiektu baterako, zeinak izen hau izan zuen ordura arte: “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako Nafarroako Foru Komunitateko harrera-baliabideetarako arreta-eredu berria lantzeko proiektua”.

*Naming* deritzon prozesuan, teknika multzo baten bidez, izenak garatzen edo/eta sortzen dira zerbitzu, produktu, marka, proiektu eta abarretarako.

“Lamorada” terminoa aukeratzean kontuan hartu zen morea NABiren kolore korporatiboa dela, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua ez ezik mugimendu feminista ere irudikatzen duela, bai eta genero-indarkeriaren kontrako gizarte borroka, kolektiboen borroka eta elkartee- na ere.

Horrez gain, aintzat hartu zen RAEk jasotako terminoaren esanahia (Morada: “Estancia de asiento o residencia algo continuada en un lugar”).

Halaber, kolore baten eta toki baten ageriko erreferentzia izan ez zedin, “LA” artikulua gehitu zen izenaren atal banaezin gisa, eta honela gelditu zen: “Lamorada”.

Izen hori proposatu zuten agentziako profesionalak, lanbide-independentzia osoz eta kontzeptualizazioarako nahiz exekuziorako askatasunez egindako sorkuntza prozesuaren ondoren.

Bai Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bai Nafarroako Gobernuak izen hori egokitzat jotzen dute proiektua bere osoan definitzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía



## **Galdera, aztarnarien taldean armadako kideak (UME) sartzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aztarnarien taldean armadako kideak (UME) sartzeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21-PES-00102), jakin nahi baitu "miaketa kudeatzeko ekipoan diharduten armadako kideak zer eginkizun ari diren betetzen...". Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Militarrak funtsean miaketa lanetan ari dira, eta txertoak jartzeko hitzorduak ematen ere lagundu izan dute salbuespenez. Halaber, ez dute sarbiderik historia klinikoetan.

Bestalde, ez dute mendekotasun hierarkikorik, bai ordea mendekotasun funtzional osoa. Nabarmentzekoa da ez dela orain arte inolako arazorik izan militar horien eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arduradunen artean. Erabiltzen den ekipamendu osoa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarena da, baita material informatikoa ere. Instalazioak Eventos Zuzarren enpresarenak dira. Miaketaren edo, kasu bada, hitzorduen arduradunak O-NOZeko Larrialdietarako Zuzendariordeztako langileak dira.

Militarrek ematen duten zerbitzuak ez du inolako kostu ekonomikorik eragiten. Intzidentziari dagokionez, haien jarduna ez dago horren araberak kuantifikatuta. Haien laguntza, beste edozein laguntza publiko edo pribatu bezala, esker onez hartzen da inoiz ez bezalako pandemia honetan egiten ari den lanean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

## Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruko inbertsioei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruko inbertsioei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak

10-21/PES-00103 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Galderan informazio hau eskatu da: "Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren barruan Nafarroako Gobernuak egindako inbertsioak, ekitaldiak eta zenbatekoak adierazita". Bada, Pirinioen Garapenerako 2007-2010 aldirako Plan Estrategikoaren memorian zehazten denez, hauek dira Plan horren barruan egindako jarduketak:

LABURPEN OROKORRA						
	AURREKONTUA GUZTIRA PGPE	BETEA 2007	BETEA 2008	BETEA 2009	BETEA 2010	BETETZE METATUA (%)
NEURRIEN LABURPENA	191.803.000,00	48.489.850,22	81.310.438,58	63.278.816,24	124.762.025,17	% 165,71
PROIEKTU ENBLEMATIKOAK	19.970.000,00	7.263.027,13	6.340.202,11	2.868.570,79	2.125.149,74	% 93,12
GUZTIRA	211.773.000,00	55.752.877,35	87.650.640,69	66.147.387,03	126.887.174,91	% 158,89

LABURPEN OROKORRA							
NEURRIAK	NEURRIEN LABURPENA	AURREKONTUA GUZTIRA PGPE	BETEA 2007	BETEA 2008	BETEA 2009	BETEA 2010	BETETZE METATUA (%)
<b>1. NEURRIA</b>	Errepideko komunikazioak hobetzea.	107.000.000,00	21.019.200,50	51.170.000,00	39.085.847,00	94.683.762,65	% 192,48
<b>2. NEURRIA</b>	Informazioaren teknologia berrietarako irispidea hobetzea	11.373.000,00	1.114.817,00	595.405,34	1.553.000,00	1.974.542,96	% 46,05
<b>3. NEURRIA</b>	Toki azpiegiturak hobetzea.	24.430.000,00	7.398.841,51	5.964.505,67	2.415.753,74	6.568.527,54	% 91,48
<b>4. NEURRIA</b>	Lehen sektorearekin lotutako jarduerak sustatzea eta egokitzea.	6.140.000,00	1.622.987,84	4.258.772,16	2.217.143,12	2.450.953,33	% 171,82
<b>5. NEURRIA</b>	Jarduera ekonomikoa eta enpresa ekimena bultzatu eta sustatzea industrian, zerbitzuetan, turismo jardueran eta merkataritzan.	1.270.000,00	97.388,72	153.394,16	165.815,09	155.455,01	% 45,04
<b>6. NEURRIA</b>	Turismo sektorea sustatu eta dibertsifikatzea.	3.160.000,00	2.051.818,79	2.092.384,09	2.347.743,05	1.875.921,00	% 264,81
<b>7. NEURRIA</b>	Pirinioetarako marketin plan bat garatzea.	300.000,00	29.053,00	88.872,36	5.064,56	0,00	% 41,00
<b>8. NEURRIA</b>	Kultur eta ondare baliabideak berreskuratu, babestu eta balioztatzea.	3.130.000,00	2.027.435,66	2.052.443,58	2.042.001,07	3.583.717,53	% 310,08
<b>9. NEURRIA</b>	Hirigintza arloko garapena, etxebizitza izateko aukera eta hiri sistemaren egitura hobetzea.	4.200.000,00	1.929.110,23	2.426.247,54	3.559.615,15	3.188.849,01	% 264,38
<b>10. NEURRIA</b>	Ingurune naturalaren babesa, kontserbazioa eta balorizazioa hobetzea.	13.850.000,00	3.661.057,00	3.638.882,38	3.642.841,00	3.958.478,00	% 107,59
<b>11. NEURRIA</b>	Zerbitzu publikoetarako irispidea hobetzea.	3.600.000,00	3.466.016,97	3.947.621,62	3.947.621,62	4.555.720,73	% 457,22

LABURPEN OROKORRA							
NEURRIAK	NEURRIEN LABURPENA	AURREKONTUA GUZTIRA PGPE	BETEA 2007	BETEA 2008	BETEA 2009	BETEA 2010	BETETZE METATUA (%)
12. NEURRIA	Neurri positiboak ezartzea ingurune naturalaren babes eta kontserbazioari eta jarduera ekonomikoari dagokienez.	11.670.000,00	3.856.076,99	4.701.099,44	1.640.850,89	1.618.143,73	% 101,25
13. NEURRIA	Eremuaren antolaketa administratiboari buruzko neurriak.	1.080.000,00	50.634,00	53.992,37	0,00	0,00	% 9,69
14. NEURRIA	Nafarroako Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoa kudeatzea.	600.000,00	165.412,01	166.817,87	112.736,28	147.953,68	% 98,82
	GUZTIRA	191.803.000,00	48.489.850,22	81.310.438,58	63.278.816,24	124.762.025,17	% 116,71

LABURPEN OROKORRA							
NEURRIAK	NEURRIEN LABURPENA	AURREKONTUA GUZTIRA PGPE	BETEA 2007	BETEA 2008	BETEA 2009	BETEA 2010	BETETZE METATUA (%)
1. NEURRIA	Errepideko komunikazioak hobetzea.	107.000.000,00	21.019.200,50	51.170.000,00	39.085.847,00	94.683.762,65	% 192,48
2. NEURRIA	Informazioaren teknologia berrietarako irispidea hobetzea.	11.373.000,00	1.114.817,00	595.405,34	1.553.000,00	1.974.542,96	% 46,05
3. NEURRIA	Toki azpiegiturak hobetzea.	24.430.000,00	7.398.841,51	5.964.505,67	2.415.753,74	6.568.527,54	% 91,48
4. NEURRIA	Lehen sektorearekin lotutako jarduerak sustatzea eta egokitzea.	6.140.000,00	1.622.987,84	4.258.772,16	2.217.143,12	2.450.953,33	% 171,82
5. NEURRIA	Jarduera ekonomikoa eta enpresa ekimena bultzatu eta sustatzea industrian, zerbitzuetan, turismo jardueran eta merkataritzan.	1.270.000,00	97.388,72	153.394,16	165.815,09	155.455,01	% 45,04
6. NEURRIA	Turismo sektorea sustatu eta dibertsifikatzea.	3.160.000,00	2.051.818,79	2.092.384,09	2.347.743,05	1.875.921,00	% 264,81

LABURPEN OROKORRA							
NEURRIAK	NEURRIEN LABURPENA	AURREKONTUA GUZTIRA PGPE	BETEA 2007	BETEA 2008	BETEA 2009	BETEA 2010	BETETZE METATUA (%)
<b>7. NEURRIA</b>	Pirinioetarako marketin plan bat garatzea.	300.000,00	29.053,00	88.872,36	5.064,56	0.00	% 41,00
<b>8. NEURRIA</b>	Kultur eta ondare baliabideak berreskuratu, babestu eta balioztatzea.	3.130.000,00	2.027.435,66	2.052.443,58	2.042.001,07	3.583.717,53	% 310,08
<b>9. NEURRIA</b>	Hirigintza arloko garapena, etxebizitza izateko aukera eta hiri sistemaren egitura hobetzea.	4.200.000,00	1.929.110,23	2.426.247,54	3.559.615,15	3.188.849,01	% 264,38
<b>10. NEURRIA</b>	Ingurune naturalaren babesa, kontserbazioa eta balorizazioa hobetzea.	13.850.000,00	3.661.057,00	3.638.882,38	3.642.841,00	3.958.478,00	% 107,59
<b>11. NEURRIA</b>	Zerbitzu publikoetarako irispidea hobetzea.	3.600.000,00	3.466.016,97	3.947.621,62	3.947.621,62	4.555.720,73	% 457,22
<b>12. NEURRIA</b>	Neurri positiboak ezartzea ingurune naturalaren babes eta kontserbazioari eta jarduera ekonomikoari dagokienez.	11.670.000,00	3.856.076,99	4.701.099,44	1.640.850,89	1.618.143,73	% 101,25
<b>13. NEURRIA</b>	Eremuaren antolaketa administratiboari buruzko neurriak.	1.080.000,00	50.634,00	53.992,37	0,00	0,00	% 9,69
<b>14. NEURRIA</b>	Nafarroako Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoa kudeatzea.	600.000,00	165.412,01	166.817,87	112.736,28	147.953,68	% 98,82
	<b>GUZTIRA</b>	<b>191.803.000,00</b>	<b>48.489.850,22</b>	<b>81.310.438,58</b>	<b>63.278.816,24</b>	<b>124.762.025,17</b>	<b>% 116,71</b>

\*Iturria: Pirinioen Garapenerako 2007-2010 aldirako Plan Estrategikoaren Memoria

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Erronkariko eta Zaraitzuko inbertsioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erronkariko eta Zaraitzuko inbertsioei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak 10-21/PES-00104 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta

Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Galderan informazio hau eskatzen da: “Erronkarin eta Zaraitzun Nafarroako Gobernuak 2010etik gaur arte egindako inbertsioak, departamentua, ekitaldia eta zenbatekoa adierazita”. Bada, ez dago urteko memoriarik berariaz jasotzen dituenik Nafarroako Gobernuak Erronkarin eta Zaraitzun egindako inbertsioak, aurrekontua betetzeaz harago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak 10-21/PES-00105 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Galderan informazio hau eskatzen da: “Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontu-betearazpenaren barruan Erronkarin eta Zaraitzun 2010etik gaur arte eginiko inbertsioak”. Bada, ez dago dokumenturik berariaz jasotzen dituenik Erronkarin eta Zaraitzun 2010etik gaur arte eginiko inbertsioak, aurrekontu-betearazpenetik beretik harago. Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-betearazpenari buruzko informazioa lortu ahalko duzu esteka honen bidez:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## Galdera, Benecke Kaliko enpresari emandako laguntzei, dirulaguntzei eta zerga-onurei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Benecke Kaliko enpresari emandako laguntzei, dirulaguntzei eta zerga-onurei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak galdera idatzia egin du (10-21/PES-00106), jakin nahi baitu zer zerga-onura eta laguntza edo dirulaguntza publiko jaso dituen Benecke Kaliko SAU enpresak azken hamar urteetan, hainbat kontzepturengatik. Hori dela eta, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak jakinarazten du laguntza edo dirulaguntzen espediente hauek identifikatu direla:

A31003049		BENECKE-KALIKO SAU			
URTEA	ZENBATEKOA	TESTUA	Noiz ordaindu den	AURREKONTU-PARTIDA	
2010	2.910,96	GORVI SA	2010/12/31	G/870000/7709/494100	Laneko arriskuen prebentziorako inbertsioak
2011	2.790,00	*PEE10ICO1220 ESP ENERGIA INDUST ETA KOGENERA DIRULAG	2011/11/30	G/810003/4701/425202	Auditoriak, diagnostikoak eta ikastaroak
2012	3.586,92	GORVI SA	2012/06/06	G/760000/7709/494100	Enplegu Plana. Laneko arriskuen prebentziorako inbertsioak

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

### Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak galdera idatzia egin du (2021/PES-00106) —106 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen, 2021eko otsailaren 24an—, jakin nahi baitu zer laguntza edo dirulaguntza jaso dituen Benecke Kaliko enpresak azken hamar urteetan egiturazko edo teknologiarako inbertsioengatik, energia

berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzazagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+B laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik, eta zer zerga-onura (I+G+B jarduerengatik kenkariak, inbertsioengatik kenkaria, bestelako kenkariak...) aplikatu dituen azken hamar urteotan. Hauxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, eskaeraren edukia hartu behar da kontuan: Benecke Kaliko enpresak aplikatutako dirulaguntzak eta onura fiskalak. Horren arabera, eskaera egin duen parlamentariak, hain zuzen ere, dirulaguntzen eta onura fiskalen kontzeptuak bereizi nahi ditu, kalifikazio eta irismen desberdinak dituztelako.

Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapen oro da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituena:

a) Dirua eman dadila onuradunen edo hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiektuen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebeharrak material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak xede izan dezala onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea.

Gainera, lege-arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, zerga-onurak ez dira dirulaguntzat hartuko.

Hori dela eta, ohartarazten da erantzuna Benecke Kaliko entitateak aplikatutako onura fiskalak direla-eta eskatutako informazioari buruzkoa baino ez dela, eta ez jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzkoa. Zentzu horretan, onura fiskalen kontzeptua adiera zabalean interpretatu behar da, hau da, aipatu zergadunak izan zitezkeen kenkari edo salbuespen fiskalak barne. Erantzunak, hala ere, ez dio eragiten Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetatik erakunde horrek jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzko informazio-eskaerari, eta halakorik ez du aipatzen gainera.

Antzeko beste informazio-eskaera batzuetan erantzun dugun bezala, esan behar da Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren (hemendik aurrera, TFLO) 105.1 artikuluan araututa dagoela; honako eduki honekin hasten da artikuluko hori: "Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuek edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu".

Hori dela eta, lege-araudiak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean jaso dituen datuak isilpekoak direla eta zergen ikuspegitik garrantzitsuak diren helburuetarako soilik bideratu edo erabili daitezkeela, hau da, zergak aplikatzeko bakarrik erabili ahal izanen direla. Izaera erreserbatu horren arrazoia

da zergadunek zerga-araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga-administrazioari bidaltzen eta ematen dizkioten datuen pribatutasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren artean. Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatutasuna eta gardentasuna), eskubide indibidualak eta kolektiboak edo gizartea kaltetu gabe.

Oreka hori lortzera bideratuta dago aipatutako TFLOren 105.1 artikulua, eta, arauaren hasierako argitasuna eta sendotasuna gorabehera, lagapen edo jakinarazpen hori baimentzen duten zenbait salbuespen edo lege-gaikuntza ahalbidetzen ditu.

Aipatutako 105.1 artikuluko salbuespen edo gaikuntzen artean ez dago eskatutako informazio-eskaera egokitzen den inolako kasurik, eta, beraz, ezin da Benecke Kalikok azken hamar urteetan aplikatutako zerga-onurei buruzko informaziorik eman.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

#### **Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatzizko galdera egin du (PES-00106). Hori dela eta, informazio hau ematen da:

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko (hemendik aurrera, NABI) zuzendari kudeatzailearen martxoaren 27ko 31E/2020 Ebazpenaren bidez, deialdia onetsi zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak ezartzeko dirulaguntzak emateko, 2020. urtean, irabazi-asmorik gabeko entitateei eta enpresei. Gero, NABIko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 3ko 90E/2020 Ebazpenaren bidez, dirulaguntza horien deialdia ebatzi zen, 2.400 euroko zenbatekoa onartuz. Hala, NABIko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 16ko 117E/2020 Ebazpenaren bidez, onartutako dirulaguntza ordaindu zen 2020ko abenduaren 22an, aipatu diru kopurua emanez Benecke Kaliko SAUri.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 30ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía



## **Galdera, lantegi-eskoletako programen eta/edo prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen entitate adjudikaziodunek jarduera azpikontratatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lantegi-eskoletako programen eta/edo prestakuntzako eta enpleguko programa integratuen entitate adjudikaziodunek jarduera azpikontratatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak galdera egin du, lantegi eskoletako programak eta prestakuntzako eta enpleguko programa integratuak 2019an, 2020an eta 2021ean gauzatzeko dirulaguntzen deialdian aurreikusten den azpikontratazio prozedurari buruz (10-21/PES-00107). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 8ko 41E/2019 Ebazpenak dirulaguntzen deialdia onetsi zuen langabeei zuzendutako Lantegi Eskola programak eta Prestakuntza eta Enpleguko Programa Integratuak 2019an, 2020an eta

2021ean gauzatzeko Nafarroan. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen urriaren 30eko 2933E/2019 Ebazpenak aldatu egin zuen deialdi hori, 7.4 oinarria gehituz, entitate onuradunek dirulaguntzaren xede den jardueraren zenbatekoaren % 60rainoko porzentajea azpikontratzen ahalko dutela dioena.

Dirulaguntzaren eskaerarekin batera aurkezten dituzten proiektuetan, entitateek jardueraren zati bat azpikontratatzeko duten aurreikuspena azaldu behar dute. Proiektu horiek aldatu egin daitezke gerora, dirulaguntza kudeatzen duen unitateari aurretiaz jakinarazita, proiektuak beren benetako gauzatzeari egokitzeko.

Azpikontratazioa egiaztatze aldera, entitate onuradunek entitate azpikontratatuarekin egindako kontratua aurkeztu behar dute, eta hor zehaztu behar dute proiektuko zer jarduera azpikontratatu dituzten eta horien zenbatekoa.

Jarduera azpikontratatu duten prestakuntza eta enplegu programa burutuei buruzko informazioa aurkezten da hurrengo tauletan. Lantegi eskolei buruz ez daukagu informaziorik, ez baitira amaitu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 0011-0618-2019-000000 PEPlak:

PEPlaren izen komertziala	Entitate azpikont.	Zenbateko azpikont.	Onartua	Azpikont. ehunekoa
Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketako eta mantentze-lanetako PEPlak (MF0820_2)	GRI-formación	33.331,50	94.386,57	<b>35,31</b>
Eremu irekietako eta industria-instalazioetako garbiketako PEPlak (OSOA)	GRI-orientación	30.736,20	99.937,87	<b>30,76</b>
Mendekotasuna duten pertsonen gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko PEPlak (MF1017_2 eta MF1018_2)	GRI-formación	44.682,00	105.124,17	<b>42,50</b>
Salmenta jardueretako PEPlak (MF0240_2)	GRI-orientación	29.804,80	89.586,53	<b>33,27</b>
Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketako eta mantentze-lanetako PEPlak (MF0820_2)	GRI-formación	33.331,50	99.747,37	<b>33,42</b>
Eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzeko PEPlak (OSOA)	GRI-orientación	30.736,20	100.039,87	<b>30,72</b>
Salmenta jardueretako PEPlak (MF0240_2)	GRI-orientación	29.059,68	93.891,87	<b>30,95</b>
Mendekotasuna duten pertsonen gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko PEPlak (MF1019_2)	GRI-orientación	30.736,20	104.395,57	<b>29,44</b>
Mendekotasuna duten pertsonen gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko PEPlak (MF1017_2 eta MF1018_2)	GRI-formación	44.682,00	111.097,87	<b>40,22</b>
Mendekotasuna duten pertsonen gizarte erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko PEPlak (MF1017_2 eta MF1018_2)	GRI-formación	44.682,00	101.141,70	<b>44,18</b>
Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketako eta mantentze-lanetako PEPlak (MF0820_2)	GRI-formación	30.321,00	90.812,70	<b>33,39</b>

## 0011-3326-2019-000000 PEPlak:

Ikastaroaren izena zabalkunderako	Entitate azpikont.	Zenbateko azpikont.	Onartua	Azpikont. ehunekoa
Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarrietako PEPlak, PZ1, osoa. Etxeko iturgintza eta berokuntza-girotze eragiketarako PEPlak, PZ1	CFP- PRL	12.928,00	197.595,00	<b>6,54</b>
Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarrietako PEPlak, PZ1, osoa.	CFP- PRL	12.928,00	137.038,20	<b>9,43</b>
Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarrietako PEPlak, PZ1, osoa	CFP- PRL	12.928,00	137.038,20	<b>9,43</b>
Salmenta jardueretako PEPlak, PZ2, osoa	Rodoia-Formación	45.000,00	159.657,00	<b>28,19</b>
Biltegiko eragiketa osagarrietako PEPlak, PZ1, osoa Merkataritzako jardura osagarrietako PEPlak, PZ1, osoa	Rodoia-Formación	30.321,00	137.643,32	<b>22,03</b>
Biltegiko jardura osagarrietako PEPlak: biltegiaren kudeaketa manufaktura-industrian	Amimet-Formación	26.994,26	67.736,36	<b>39,85</b>

## **Galdera, Nafarroako Foru Ogasunaren gaurkotze teknologikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Ogasunaren gaurkotze teknologikoari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Foru Ogasuna teknologiararen aldetik gaurkotzeari buruz (10-21/PES-00108). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1. Ogasun Departamentua teknologiararen aldetik gaurkotzeko egutegia.

Badago hasierako egutegi bat Nafarroako Foru Ogasuna teknologiararen aldetik gaurkotzeko. Orientazio hutserako zirriborroa da, eta doituz joanen da lanetan aurrera egin ahala, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuko baliabideen arabera eta unean uneko bitarteko teknikoaren eta giza baliabideen arabera.

Egutegi hori ezagutu nahi baduzu, eman ahalko dizuegu, informazio eskaera bat izapidetzen duzunean Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan araututa dagoen prozeduraren bitartez.

2. Zer ekintza egingen da kredentzialen sistemak egokitzeko eta NAN+PIN identifikazio-sistema kentzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

Batetik, Nafarroako Foru Ogasuneko sistemak egokitu egin nahi dira, beste autentifikazio sistema batzuekin funtzionatu ahal dezaten (dagoeneko % 95ean egin dezakete, baina oraindik egokitu gabe daude kasu korapilatsuenak, esaterako errentaren aitortzen baterako aurkezpena). Lan horri ekin nahi zaio Nafarroako Foru Ogasunak erabiltzen dituen aplikazioetan urtero egiten diren mantentze eta laguntza lan arrunten barnean, zein

nak honako aurrekontu-partida hauekin finantzatzen baitira hein batean:

- 151000-17300-2273-931300 partida, “Zerga arloko informatikako sistema integratua mantentzea” izenekoa

- 151000-17300-6094-931300 partida, “Zerga arloko informatikako sistema integratua” izenekoa.

Bestalde, NAN-PIN identifikazio-sistema arazorik gabe kendu ahal izateko, Gobernuak erabaki du NAN-PIN sistemaren ordez seguruagoak diren beste batzuk erabil daitezzen sustatzea, besteak beste cl@ve sistema.

Nafarroako Foru Ogasunaren jardunaren esparru espezifikuan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin elkarlanean Cl@ve sistemaren zabalkunderako bi kanpaina egitea aurreikusuten da gonbidapen-gutunaren bitartez. Lehenbizikoa orain arte aitortzen paperean aurkeztu izan dituzten banakako enpresaburuei eta profesionali zuzenduko zaie, 2021eko apirilaren 1etik aurrera nahitaez aurkeztu beharko baitituzte Internet bidez. Bigarrena 2020ko Errenta kanpaina egingen da, eta zergadunei eskainiko zaie Cl@ve sistema lortzea bulego batera joan beharrik izan gabe, Interneten eskura dauzkaten zerbitzuak erabili ahal ditzaten.

Nafarroako Foru Ogasuneko zerbitzu telematikoei dagokienez, PIN sistema pixkanaka kentzeari ekin zaio, eta ordezkaritza elektronikoa bezalako zerbitzu berrien garapenaren mendean dago prozesu hori. Izan ere, zergadunek orain PINarekin egin daitezkeen eragiketa guztiak beste egiaztapen-sistema batzuekin eta ordezkaritza sistemarekin egiteko modua dutenean kendu ahalko da erabat.

3. Zer ekintza egingen da Foru Ogasuna “zero paper” ereduaren arabera eraldatzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

Ez dago Nafarroako Foru Ogasunean “zero paper” proiekturik, baina duela urte batzuetatik hona erregistroan jasotzen diren eskabideak eta zerga aitortzen gehienak, edo bide telematikotik sartzen dira (web formularioak, laguntza programa, erregistro orokor elektronikoa), edo sarreran digitalizatu egiten dira. Horrela, erakundeak infor-

mazio sistemetatik hartzen du informazioa, eta ez paperean.

4. Zer ekintza egingen da Ogasun Departamentuaren konputazio eta biltegiatze ahalmena handitzeko zerbitzu handiko egunetan? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

Ez dago aurreikusita inolako ekintza berezirik. Azpiegiturak zerbitzu handiko egunetarako adina-koak dira dagoeneko. Beraz, horretarako aurrekontu-partidarik ere ez dago.

5. Zer ekintza egingen da "laguntzaile birtualen" zerbitzua finkatzeko eta handitzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

Azken hilabeteetan aztertu da ea komeni den laguntzaile birtualak erabiltzea zergadunei laguntza eta informazioa emateko, oro har, eta Errenta kanpainan, bereziki. Eskaintzen duten funtzionaltasuna aztertu da, informazioa eta laguntza bilatzeko beste sistema batzuen aldean (aurkibideak, bilatzaileak, formularioak, ohiko galderak, gaikako atariak eta abar). Beste alderdi batzuei ere erreparatu zaie, hala nola teknologiaren horni-

tzailearekiko mendekotasuna, kostu ekonomikoa, informazioa mantentzearen kostua eta zailtasuna, etab.

Azterketaren ondorioz, arduradunek eredu hau hautatu dute: laguntza-ataria ohiko galderekin eta bilatzaile batekin. Eredu hori garatzeko asmoa dago hurrengo Errenta kanpainari begira.

6. Nola ustiatuko da adimen artifizialaren, big dataren eta datuen ingeniartzaren erabilera iruzurraren aurka borrokatzeko? Zer aurrekontu-partidarekin finantzatuko dira ekintza horiek?

Gaur egun ibilbide-orri bat prestatzen ari da, iruzurraren aurkako borrokan adimen artifiziala, Big Data eta datuen ingeniartzara erabiltzeko. Hala ere, oraingoz ez dago erabaki finkorik, ez dago plangintzarik, ez aurrekontu zenbatetsirik, ezta, ondorioz, horretara bideratutako partidarik ere.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

## Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernuaren laguntzei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernuaren laguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00109 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

2021ean nahiz hurrengo urteetan ezarri nahi diren zenbatekoen arloko berritasunak eta zaharberritzeetarako laguntza-formulak direla-eta, adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitatean zaharberritze babesturako laguntzak egonkorrak direla, ez direla arautzen urteroko deialdietako oinarrien bidez, eta haien zehaztapena eta zenbatekoak irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan jasorik daudela (dekretu horrek etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen ditu). Beraz, arau aldaketa bat egin beharko litzateke haiek aldatu ahal izateko. 2021aren hasiera honetan ez dago aurreikusita inolako aldaketarik egitea. Jarduketa babesgarri horietara bideratuko diren Europako funtsen zain gaude. Funtsen zenbatekoak eta baldintzak jakiten direnean, indarra duen esparrua aldatu behar den ala ez aztertuko da.

Hauek dira 2011tik emandako dirulaguntzak:

URTEA	Espedienteak	Etxebizitzak	Aurrekontu orokorra	Dir. lag. daitekeen aurr.	DIRULAGUNTZA
2011	2.592	6.114	105.222.366,00 €	93.984.803,00 €	33.833.537,00 €
2012	1.400	6.488	99.992.302,00 €	89.773.441,00 €	33.676.322,00 €
2013	885	3.320	53.682.827,00 €	41.944.827,00 €	15.726.461,00 €
2014	489	1.537	25.933.667,00 €	23.964.015,00 €	8.356.389,00 €
2015	484	2.328	28.714.079,00 €	27.094.387,00 €	9.614.447,00 €
2016	546	3.414	48.186.528,00 €	46.213.016,00 €	16.433.376,00 €
2017	1.126	4.132	52.541.192,07 €	49.856.094,89 €	18.179.514,07 €
2018	1.302	5.429	65.305.751,54 €	62.121.476,43 €	22.686.112,49 €
2019	1.345	6.614	74.323.480,76 €	70.673.475,75 €	24.629.901,43 €
2020	1.167	5.507	74.968.753,36 €	72.255.375,57 €	26.153.536,75 €

Laguntza horietarako aurrekontu-partidak, "Etxebizitzetan jarduketak egiteko dirulaguntzak eta sorospenak" izenekoak, 2020an 26.060.854 euroko hasierako zenbatekoa izan zuen. 2021erako % 35etik gora hazi da. Izan ere, partida horrek

hasierako 35.874.641 euroko aurrekontua du oraingo ekitaldirako.

Eta honako hauek dira 2021eko tasak, ehunekoak eta mugak:

CARACTERÍSTICAS DE LAS SUBVENCIONES: (1) (Subvenciones ordinarias ver cuadro inferior)			
- Cuantía: Porcentaje indicado en los cuadros sobre el presupuesto subvencionable			
<b>COMUNIDADES DE VECIÑOS: supresión de barreras promovidas por la comunidad:</b>		<b>Años del edificio =&gt;</b>	<b>Más de 25</b>
- Con obra supresión de barreras, edificios en ascensor: (Máximo 8.000 €/vivienda; 10.000 € en el caso de 1ª vivienda)			45%
- Con obra supresión de barreras, edificios con ascensor: (Máximo 5.000 €/vivienda)			30%
- Edificios sin ascensor, sin llegar a la total adaptación a la normativa de barreras (Máximo 5.000 €/vivienda)			25%
- Edificios con ascensor, sin llegar a la total adaptación a la normativa de barreras (Máximo 5.000 €/vivienda)			20%
- En Proyectos de Integración Global por parte de una subvención adicional de			50%
<b>COMUNIDADES DE VECIÑOS: mejora de la envolvente térmica promovida por la comunidad (Máx. 6.000 €/vivienda)</b>			40%
- Mejora de la envolvente térmica en Proyectos de Integración Global: (Máx. 7.500 €/vivienda)			50%
- Mejora de la eficiencia de instalaciones térmicas centralizadas adaptándose al DTE-DB-HE-2 (Máximo 6.000 €/vivienda)			40%
- Análisis de la instalación de calefacción inferior de las viviendas e instalación de contador (Máximo 3.000 €/vivienda)			20%
<b>SUBVENCIONES EXTRAORDINARIAS A PERSONAS FÍSICAS: (Máximo 10.000 € o 25.000 € en un familiar o Área de Rehab. Preferente)</b>			
- Adaptación de vivienda de persona con discapacidad no menor del 40% e ingresos inferiores a 2,5 veces el SARA			50%
Promotores con ingresos entre 2,5 y 3,5 veces el SARA			40%
- Promotores o cónyuges mayores de 65 o menores de 35 años, con ingresos inferiores a 2,5 veces el SARA			45%
Promotores con ingresos entre 2,5 y 3,5 veces el SARA			30%
- Áreas de Rehabilitación Preferente: (Promotores o usuarios con ingresos inferiores a 2,5 veces el SARA)			45%
Promotores-usuarios con ingresos entre 2,5 y 3,5 veces el SARA			30%
- Familias numerosas. Si son de categoría general, perciben una subvención adicional de (5)			5%
Si son de categoría especial, perciben una subvención adicional de (5)			10%
- Víctimas de terrorismo, violencia de género o perceptoras de Renta de Inserción Social, según condiciones (3)			5%
<b>PROMOTORES PARA ARRENDAMIENTO: (Máximo 12.000 €/vivienda) Deberán destinarse al arrendamiento al menos 6 años</b>			
des de la fecha de calificación definitiva.		<b>Años del edificio =&gt;</b>	<b>Más de 50 Más de 25</b>
- En Área de Rehabilitación Preferente y renta mensual inferior a 5,53 o 6,27 €/m <sup>2</sup> (1)			40% 11%
Subvención máxima, por m <sup>2</sup> útil, hasta un máximo de 120 m <sup>2</sup> :			525,13 € 33,62 €
- En edificios con renta mensual inferior a 5,53 o 6,27 €/m <sup>2</sup> (1)			22% 11%
Subvención máxima, por m <sup>2</sup> útil, hasta un máximo de 120 m <sup>2</sup> :			177,25 € 33,62 €
<b>TABLA DE INGRESOS PONDERADOS (€) Parte general de la base imponible más rentas exentas de tributación</b>			
Composición Familiar (2)	Devolución del IRPF (€) del año 2019 en número de veces el SARA		
	2,5	3,5	
1 Persona	22.817,50	32.054,50	
2 Personas	50.596,67	42.779,73	
3 Personas	30.739,29	45.835,00	
4 Personas	54.925,46	43.512,36	
5 Personas	36.963,71	51.749,19	
6 Personas	59.512,93	56.513,10	
7 Personas	40.439,81	59.415,74	
8 Personas	45.855,00	64.159,00	
Edificio de	<b>SUBVENCIONES ORDINARIAS SEGÚN INGRESOS (Columna de ingresos de promotores-usuarios) (1)</b>		
Más de 50 años	20%	10%	
Entre 25 y 50 años	10%	5%	

NOTA (1) No se tendrán derecho a percibir subvenciones de carácter personal los ingresos familiares ponderados no excedan un 60% del presupuesto.

NOTA (2) Si hay algún discapacitado en la unidad familiar, se computará una persona más, igualmente se incluye alguna persona mayor de 65 años.

NOTA (3) Los porcentajes adicionales no son acumulables entre sí.

NOTA (4) Según se trate de Pequeños y Comercios, Tercios, Estable y Taberna de venta de las localidades de Navarra, respectivamente.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria, José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Nafarroaren eta Iparralderen arteko sei muga-pasaguneak irekitzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroaren eta Iparralderen arteko sei muga-pasaguneak irekitzeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Frantziako Gobernuak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Prefeturaren bidez, terrorismoa-  
ren aurkako borrokaren indargarri gisa, Frantzia eta Espainia arteko mugako pasabide baimenduetako batzuk itxi zituen iragan urtarrilean. Honako hauek dira:

- Hendaiaiko itsas transbordadorea
- Hendaiaiko etorbideko zubia
- Lizuniagako mendatea
- Lizarrietako mendatea
- Sarako errepidea – Berruetako benta

- Izpegiko mendatea
- Aldude
- Larraineko mendatea
- San Martin Harria - Somporteko mendatea

Adierazi behar da mugak kontrolatzeko eskumena Estatuarena dela. Hala ere, kontseilari honek, Euroeskualdearen bitartez, itxieraren gaitzespena helarazi zien Frantziako eta Espainiako gobernuei, Nafarroako mugaldeko biztanleei eragiten dien kaltearengatik, eta erabakia berraztertzeko eskatu zien.

Gainera, Sergio Pérez Kanpo Ekintzarako zuzendari nagusiak, iragan martxoaren 11n, Eric Spitz Pirinio Atlantikoetako prefetari eskatu zion kontuan har zedila Frantziak dekretatutako mugapasabideen itxierak inguruko biztanleei eragiten dien kaltea.

Esku-hartze horren ondoren, modu ez-ofizialean jakin dugu Prefekturak hiru pasabide irekitzeko erabakia iragarri duela: Lizuniagakoa, Lizarrietakoa eta Sarakoa. Hala ere, Nafarroako Gobernutik jarraitzen dugu eskatzen mugako pasabide guztiak erabat ireki daitezela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **Galdera, Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruei eta estatutuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruei eta estatutuei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 10-21/PES-0111 galdera idatzia egin du, jakin nahi baitu ea Kultura Departamentuak ba al duen azterlanik edo txostenik Europar Batasuneko lurraldeetako artisten arau-esparruak eta estatutuak jorratzen dituenik. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Gai honi buruzko ikuspegi orokorra lortzea zaila eta konplexua denez, Vianako Printzea Erakundeak-Kultura Zuzendaritza Nagusiak txosten bat enkargatu du Kulturako Lanbideei buruzko Foru Legea prestatzeko asmoz. Txosten horretan bildu eta aztertuko dira Estatuko kultura arloko federazio eta elkarteek argitaratu dituzten dokumentu guztiak (arauak, analisiak eta gogoetak), Artisten Estatutua prestatzeko azpibatzaileak eman zitzaizkionak, 2017an, Kultura Batzailearen baitan, Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkurak hala erabakita: "Kulturaren mun-

duan profesionalen egoera hobetzeko proposamenak". "Esparru dokumentua.

Artisten, Egileen/Sortzaileen eta Kulturako Langileen Estatutua". "Artisten, Egileen/Sortzaileen eta Kulturako Langileen Estatutuari buruzko txostenak". "Hitza eskatzen dugu. Kulturako 100 profesional beren esperientziak mintzo dira".

Baita Europako zuzentarau eta bestelako dokumentu batzuk ere: Unescoren azterlanak: Kultura eta artisten lan baldintzak (2019); Txosten analitikoak, estatu kideek Artistei buruzko 1980ko Gomendioa aplikatzearen gainekoa (2015eko urria); Laburpen txostena, estatu kideek Artistei buruzko 1980ko Gomendioa aplikatzearen gainekoa (2011ko urria); Artistei buruzko Gomendioaren aplikazioari buruzko Mundu Bitzarreko konklusioak (Paris, 1997); Artistei buruzko Unescoren Gomendioa (Belgrad, 1980); Europako Parlamentuaren Ebazpena, artisten estatutu sozialari buruzkoa (2007ko ekainaren 7a); Europako Parlamentuaren Ebazpena, Europa hedatuen antzerkiak eta ikuskizunaren arteak duten garrantziari eta dinamismoari buruzkoa (2002ko uztailaren 15a); eta Europako Parlamentuaren Ebazpena, artistek Europar Batasunean duten egoerari eta egitekoari buruzkoa (1999ko martxoaren 9a); eta beste batzuk.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo



## **Galdera, “Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektuari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatzizko galdera egin du (PES-00112); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

“Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen salerosketa eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea” proiektua aztertu ondotik —Nafarroako Berdintasunerako Institutuak Next Generation funtsetara aurkeztutako proiektuetako bat, 30 milioi euro inguruko aurrekontua duena, zeinetan sei autonomia erkidegok parte hartzen baitute—, honako hau jakin nahi dut:

Aurrekontu eta proiektu horren zer parte dago kie Nafarroari eta gainerako autonomia erkidegoei? Zer irizpideren arabera ezartzen dira zenbateko horiek? Izan ere, 30 milioi euroko jarduketaren baten inpaktuaren analisiari dagokionez, proiektuak berak diotenaren arabera, “proiektuaren inpaktuaren estimazioak azkentzen ari dira une honetan”.

Espainiako beste autonomia erkidego batzuekin batera Nafarroa proiektu honen definizioan parte hartzen ari da: ‘Prostituzio-testuinguruetan emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko eta haur eta nerabeen saleros-

keta eta sexu-esplotazioa desagerraraztearen aldeko autonomia-erkidegoen sarea’.

Asmo handiko proiektu integrala da. Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoak zuzentzen du, eta, Nafarroaz gain, partaide ditu Asturias, Kantabria, Galizia, Extremadura, Aragoi, Gaztela-Mantxa eta Ceutako hiri autonomoa.

Estrategia bikoitza garatu nahi da, egiturazko indarkeriari aurre egiteko lana eta oneratzetarako erabilbidearen eraikuntza uztartzen dituen, emakumeek prostituzioa utzi eta sexu ustiapeneko egoeretatik ateratzeko aukera izan dezaten.

Proiektuak hiru ardatz ditu:

Lehenbizikoa ikerketa da, eta atal horretan honako ikerlan hauek aurreikusten dira:

- Parte hartzen duten autonomia erkidegoetako bakoitzean prostituzioaren diagnostikoa egitea
- Interneteko pornografia aztertzea, eta adingabeek nola erabiltzen duten “sexu eskola” gisa
- Estatuko eta autonomia erkidegoetako araudia aztertzea, prostituzio-inguruneetatik irteera zailtzen duten oztopoak detektatzeko (laguntzen baldintzak, lege egoera, titulazioen homologazioa etab.)

Bigarren ardatzean arreta integralaren diseinuari ekinen zaio, eta barnean bilduko ditu prestakuntza, gizarteratzea, laneratzea, enplegurako sarbidea, arreta psikologikoa eta laguntza pedagogikoa oneratzeko-plan integrala garatzeko, eta errentak eta bizitegi-baliabideak martxan jartzeko (edo indartze) prostituzio-inguruneetan dauden emakumeentzat.

Hirugarren ardatzean hainbat sektoretako profesionalekin lan egingen da identifikatzeko, ekiteko eta sentikortzeko. Berritzailetzat eta ezinbestekotzat jotzen da kontzientziazio lana egitea hotelekin eta gaueko aisialdiko enpreekin. Hezkuntza komunitatearentzako kanpaina bat ere egingen da, eta aisialdiaren arloko eta hirugarren sektoreko entitateei zuzendutako beste bat.

Proiektuaren helburua da, beraz, emakume esplotatuek gizarteratzea eta laneratzea lor dezaten, haien eskubideak erabat aitortuta, estigmatik

gabe eta estereotiporik gabe, eta aldi berean, prestakuntza eta sentsibilizazioa direla medio, genero indarkeria desagerrarazi eta prostituzioa abolitu ahal izateko eraldatze soziala lortzeko behar adinako kontzientzia sorraraztea.

Azken hilabeteetan modu koordinatu eta partekatuan landu den proiektu hori amaierako fasean dago eta haren aurrekontu-inpaktuaren zenbatespen zehatzak doitzen ari dira. Nolanahi ere, guztira 38,5 milioi euro inguru jartzea aurreikusten da.

Autonomia erkidego guztien jarduketa batzuk eta parte hartzen duen autonomia erkidego bakoitzaren jarduketa espezifiko batzuk jaso dira proiektuan.

Proiektua behin betiko zehazten denean, Nafarroarentzako aurrekontuaren amaierako zenbatekoa ere ezarriko da. Oraingoz ezin diogu informazio hori igorri Nafarroako Parlamentuari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 30ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía



